

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

4976

AGINDUA, 2024ko urriaren 21ekoa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez esleitu gabe uzten baita Euskal Ekonomiari buruzko Doktorego-tesi Onenaren Alberto Alberdi saria bigarren edizioan (2024).

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2024ko maiatzaren 28ko Aginduaren bidez, Euskal Ekonomiari buruzko Doktorego Tesi Onenaren Alberto Alberdi Sariaren II. edizioaren oinarriak eta deialdia onartu ziren.

Seigarren oinarriak ezartzen duenez, «epaimahaiak ez badio 60 puntu edo gehiago ematen aurkeztutako tesi bati, epaimahaiburuak saria emateko eskumena duen organoari aurkeztuko dio proposamena, saria eman gabe uzteko, parte-hartzaileen zerrenda ordenatuarekin eta doktorego-tesien bidez lortutako balorazioekin batera».

2024ko urriaren 14an, epaimahaiburuak saria eman gabe uztea proposatu zuen, aurkeztutako tesiak gutxienez 60 puntu ez lortzeagatik.

Seigarren oinarri berak ezartzen duenez, «organo eskudunak prozedura amaituko du sariaren deialdia bete gabe utzi dela adierazten duen agindua emanez». Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Ekonomiari buruzko doktorego tesi onenaren Alberto Alberdi sariaren deialdiaren saria (II. edizioa, 2024) esleitu gabe geratu dela deklaratzeari.

Bigarrena.– Agindu hau eta eranskina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea. Eranskin horretan, parte-hartzaileen datuak eta doktorego-tesietan lortutako puntuazioak jasotzen dira. Halaber, agindu hori deialdiko prozeduran parte hartu duten pertsonen jakinarazteko agintzea.

AZKEN XEDAPENA.– Administrazio-errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluetan ezarritakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 21a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

2024ko urriaren 30a, asteazkena

ERANSKINA

PARTE-HARTZAILEEN ETA HAIEN DOKTOREGO-TESIEK LORTUTAKO PUNTUAZIOEN
ZERRENDA

Espedientearen kodea	Abizenak, Izena	NAN	lortutako puntuazio osoa
001-1208702	Amondarain Arteché, Josune	***2594**	56,6